

**Irakasgaiaren izena:** Euskararen arauak eta erabilerak (PSIKOLOGIA)

**Irakaslea:** Pilartxo Etxeberria Murua. <pilar.echeverria@ehu.es>

**Saila:** Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa (00113)

**Telefono zenbakia:** 5525

**Helbide elektronikoa:** pilar.echeverria@ehu.es

**Izaera:** teoriko-praktikoa

Teorikoa: 2 kreditu

Praktikak (ikasgelan): 2 kreditu

Praktikak (ordenagailu-gelan): 2 kreditu

**Modalitatea:** aurrez aurrekoa + telematikoa

-Aurrez aurrekoa: 10 ordu kredituko

-Telematikoa: Banakako eta taldeko lanak egiteko (15 ordu kredituko)

#### HELBURUAK/GAITASUNAK

Hauek dira irakasgai honek jomugan hartuko dituen gaitasunak:

- 1. gaitasuna.** Goi-mailako tituludunek euskararen erabileran eta garapenean duten eraginaren kontzientzia hartzea, eta norberaren komunikazio-rola berraztertzea testuinguru horretan. (Denboraren % 10 erabiliko da gaitasun hau lantzeko).
- 2. gaitasuna.** Norberaren intuizio eta esperientzia linguistikoak sistematizatu, azaldu eta berrikustea, hizkuntzaren erabilera zuzen eta egokia jomugan. (Denboraren % 80 erabiliko da gaitasun hau lantzeko).
- 3. gaitasuna.** Kontsulta-tresnak erabiltzen jakitea (bereziki interneten eskuragarri daudenak), askotariko komunikazio-egoeretan sor daitezkeen premiei egokiro erantzuteko mailan. (Denboraren % 10 erabiliko da gaitasun hau lantzeko).

#### LANGAIK / EDUKIAK

##### EDUKIEN DESKRIBAPEN LABURRA

Hauek dira irakasgai honek langai hartuko dituen alderdiak:

-Zuzentasunaren eta egokitasunaren osagaiak: gramatika-arauak, arau akademikoak eta pragmatikoak.

-Komunikazio-ekintzaren parametroak: hartzaila, gaia, euskarria, helburua...

-Komunikazio-jarduerak: entzuketara eta irakurketa arretatsua; ahozko eta idatzizko elkarreragina; jendurreko azalpenak; idatzizko ekoizpenak; ahozko elkarreragina; elkarreragin idatzia...

-Testuak: ikerkuntza-testuak (artikuluak, ponentziak, komunikazioak, doktoretza-tesiak); txosten teknikoak (proiektuak, esku-liburuak, txostenak...); material didaktikoak (liburuak, fitxak, web-orriak...); hedabideetako testuak (albistek, erreportajeak, dibulgazio-materialak...), testu administratiboak (curriculumak, gutunak, aktak, deialdiak...), eta abar.

-Estilo zaindu orokorra: proposamenak eta gomendioak

## EGITARAU TEORIKOA

1. Araua eta erabilera: sarrera
  - 1.1. Sarrera
  - 1.2. Arau motak
  - 1.3. Hizkuntza-aldaerak
  - 1.4. Aldaera estandarra
2. Euskararen arau estandarra: Euskaltzaindiaren araugintza
  - 2.1. Hizkuntza estandarra
  - 2.2. Euskararen estandarizazio-eredua
  - 2.3. Euskara Batuaren arautzearen urrats nagusiak
  - 2.4. Euskaltzaindiaren araugintza: arauak eta hiztegi batua
3. Euskara batuaren garapen lexiko-estilistikoa
  - 3.1. Proposamenak: ortotipografia; ortografia; letra larrien erabilera.
  - 3.2. Proposamenak: esaldiaren antolamendua eta hitz-hurrenkera
  - 3.3. Proposamenak: morfosintaxia
  - 3.3. Proposamenak: izen-kohesioa; testu-antolatzaileak
  - 3.4. Proposamenak: hiztegia eta terminologia
4. Testu zientifikoaren berezitasunak eta estilo-aukerak
  - 4.1. Testu zientifikoaren osagai bereziak.
  - 4.2. Hitz elkartuen idazkera
  - 4.3. Izen-sintagma konplexuak

## EGITARAU PRAKTIKOA

- Euskaraz idazteko kontsulta-baliabideen erabilera: ohiko baliabideak eta Internetekoak.
- Testuak sortzeko estrategiak
- Testuak itzultzeko estrategiak
- Testuak zuzentzeko estrategiak
- Idatzizko testuak eta ahozko testuak.

## AMAIERAKO SOSLAIA / EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

Hauxe da ikasgai honek bilatzen duen amaierako soslaia

- Komunikazio profesionalaren abiapuntua den hizkera estandarren irizpide eta arauen ezagutza nahikoa.
- Hizkuntza-baliabide egokiak bereizteko gaitasuna, beti ere, komunikazio-egoeraren parametroak kontuan izanda: hartzailea, gaia, euskarria, helburua, eta abar.
- Ikaslearen jardura akademiko-profesionalarekin zuzenean lotutako genero eta erregistroen ezaugarriei antzemateko gaitasuna.

## IRAKASKUNTZA MOTA BAKOITZARI ESKAINTZEN ZAIZKION ORDUAK

Irakasgaiaren irakaskuntza motak	Presentziazkoa: (kreditu kopurua x 10)	Ez presentziazkoa : (Guztira - Presentziazkoa)	Guztira: (Kred. Kopurua x 25)
Magistrala	20	20	40

Praktikak (ordenagailu-praktikak / arazoak eta egoerak nola konpondu...)	20	35	55
Ikasgelako praktikak	20	35	55
OROTARA	60	90	150

#### EBALUAZIO-PROZEDURA

Gaitasunak egiaztatzeko tresna hauek erabiliko dira:

- Parte-hartzea:** talde-lanerako gaitasuna, jokabide autonomoa, jarrera aktiboa, ekarpenen kalitatea, eta abar.
- Portafolioa:**
  - Jomugan hartutako gaitasunak egiaztatzen dituzten 5-10 lan (ahozkoak zein idatziak). Gutxienez gaitasun bakoitzeko bat.
  - Hizkuntza-arauak komunikazio eraginkorrari begira kudeatzeko irizpideak laburbiltzen dituen txostena.
  - Estilo eta terminologia zainduaren auzi adierazgarrien inguruko 20 fitxa.
- Azterketa-proba(k).**

Oharrak: gaitasunak egiaztatzeko bi bide erabiliko dira (ikasleak bietako bat hautatu beharko du):

1. Azterketa

Testa (50 ariketa)	1,5 (%15)
Itzulpen-lana	3 (%30)
Idazlana	3 (%30)
Kontsulta-tresnei buruzko gogoeta	1 (%10)
Ahozko aurkezpena	1,5 (%15)

2. Ebaluazio jarraitua

Parte-hartzea	1 (%10)
Test moduko ariketa	1,5 (%15)
Ahozko aurkezpenak	1,5 (%15)
Irakasgaiaren portafolioa	6 (%60)

Edozein modutan ere, indarrean dagoen arautegiari jarraiki, ikasle guztiek izango dute irakasgaiaren nota osoa amaierako azterketa-proban jokatzeko aukera.

#### BIBLIOGRAFIA:

**Oinarrizko bibliografia (gehienez 10 titulu)**

- ALBERDI, X.; UGARTEBURU, I. (1999): *Euskaltzaindiaren araugintza berria: ikastaroa*, Bilbo: EHuko Argitalpen Zerbitzua.
- ALBERDI, X.; SARASOLA, I. (2001): *Euskal estilo-libururantz*, Bilbo: EHuko Argitalpen Zerbitzua.
- BASURTO, M. eta CRESPO, S., 2007. Araugintza-ikastaroa. Nafarroako Gobernua.
- EUSKALTZAINDIA (1993b): *Hitz elkartuen osaera eta idazkera*. Bilbo:
- ENSUNZA, M., ETXEBARRIA, J.R. eta ITURBE, J. (2002) *Zientzia eta teknikarako Euskara: Zenbait hizkuntza-baliabide* UEU

ODRIOZOLA, J.C. eta ZABALA, I. (1992) *Idazkera tekniko*. 2.- *Izen-sintagma* Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen-Zerbitzua

ZUBIMENDI, R. eta ESNAL, P. (1993) *Idazkera liburua*. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila

### **Interneteko helbideak**

EIMA-REN ESTILO-LIBURUA:

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dih/eu\\_5490/estilo\\_liburua\\_e.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dih/eu_5490/estilo_liburua_e.html)

EUSKALTZAINDIA (2000): *Hiztegi Batua*, Euskera, 2000-2, 45. liburukia./

<http://www.euskaltzaindia.net/hiztegibatua>

EUSKALTZAINDIAREN arauak: <http://www.euskaltzaindia.net/arauak/>

EUSKALTZAINDIAREN Jagonet kontsultagunea: <http://www.euskaltzaindia.net/jagonet>

EUSKALTZAINDIA (1985-2005): *Euskal Gramatika, Lehen Urratsak I-VI*. Bilbo:

Euskaltzaindia. Baita Interneteko helbide honetan ere:

[http://www.euskaltzaindia.net/iker\\_jagon/iker/gramatika](http://www.euskaltzaindia.net/iker_jagon/iker/gramatika)

Hiztegiak eta corpusak sarean

<http://www.hiztegia.net>

Euskaltzaindia: *Euskera* (<http://www.euskaltzaindia.net/euskera>)

UPV/EHU-ren kontsultagunea: hizkuntza-baliabideak:

<http://www.euskara-errektoreordetza.ehu.es/> → Hizkuntza baliabideak

EUSKALTZAINDIA:

<http://www.euskaltzaindia.net>

### **Bibliografia osagarria**

BATZUEN ARTEAN, 2008. *XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak*.

*Euskara, XXI. mendeko hizkuntza bizia, egunerokoa eta noranahikoa*. Eusko Jaurlaritza.

CALSAMIGLIA, H. & A. TUSÓN (1999), *Las cosas del decir. Manual de análisis del discurso*. Bartzelona: Ariel.

ELORDUY, A. (2007): *Irakaskuntza-egitasmoa*, UPV/EHUko Euskal Filologia sailean aurkeztutako titularitate-proiektu argitaragabea.

Euskararen Aholku Batzordea, 1998. *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*. Eusko Jaurlaritza.

Euskararen Aholku Batzordea, 2004, *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*. Eusko Jaurlaritza.

Euskararen Aholku Batzordea, 2008. *Euskara hedabideetan. Euskarazko hedabideak eta euskararen presentzia hedabideetan*. Eusko Jaurlaritza.

Eusko Jaurlaritza, 2008. *Euskararen IV Inkesta Soziolinguistikoa*. Eusko Jaurlaritza.

EZEIZA, J., LEKUONA, M. eta ALTUNA, E. (1995) *Esalditik testura (euskaraz trebatzen)*. GAIK. Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Donostia.

GARZIA, J. (1997): *Joskera lantegi*, Gasteiz: HAEE-IVAP.

GARZIA, J. (2008) *Jendaurrean hizlari. (Ahozko) komunikazio gaitasuna lantzeko eskuliburua*. Alberdania

HAEE/IVAP (1994): *Hizkera argiaren bidetik*, Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (HAEE/IVAP).

\_\_\_\_\_ (1997): *Argiro idazteko proposamenak eta ariketak*, Gasteiz: HAEE/IVAP.

\_\_\_\_\_ (2003): *Galdezka: euskarazko zalantzei erantzunez*, Gasteiz: HAEE/IVAP.

\_\_\_\_\_ (2005): *IVAPeko estilo-liburua*, Gasteiz: HAEE/IVAP.

KALTZAKORTA, M. (2007) *Prosa komunikagarriago egiten zenbait proposamen (I)*. UEU

ODRIOZOLA, J.C. (koord.) (1999) *Zenbait gai euskara teknikoaren inguruan*. EHUko Argitalpen Zerbitzua

OIHARTZABAL, B. (1993), "Euskara batuari iparraldetik behatuz". *Jakin* 76: 79-89.

OIHARTZABAL, B. (1996), "Euskara batua eta euskalkiak". *Aitzolen Mendeurrena eta II. Jagon Jardunaldiak*. *Euskera* 41: 511-515.

SALABURU, P., 2002. *Euskararen etxea*. Alberdania.

SARASOLA, I. (1997): *Euskara batuaren ajeak*, Alberdania.

ZABALA, I. eta J.C.ODRIOZOLA (1992) *Idazkera teknikoa. 1-Hitz-ordena, galdegaia eta komaren erabilera* EHUko Argitalpen Zerbitzua

ZABALA, I. (koord.) (1996) *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknikoa*. EHUko Argitalpen Zerbitzua

ZABALA, I. (2000) "Euskararen zientzia eta teknikarako erabileraren hizkuntza berezitasunak". *Ekaia* 13: 105-129

ZABALA, I.(1998) 'Hitz-hurrenkera euskara tekniko-zientifikoan' *Ekaia* 12

ZUAZO, K. (1985), *Euskararen batasuna*. *Iker* 5. Bilbo: Euskaltzaindia.

ZUAZO, K. (2005) *Euskara batua*. Ezina ekinez egina. Elkar

ZUAZO, K. (2008) *Euskalkiak*. Euskararen dialektoak. Elkar

-----

*Bat Soziolinguistika aldizkaria*